

1999-2000 Ikasturtea
Oier Lakuntza Irigoién
C/ Fudela 16. 7º E2K
31002 Iruña
Puz eszizpude gharble
2. Sana

UR GOIENA

UR BARRENA

“UR GOIENA, UR BARRENA”

URDIAINGO URTEZAHARREKO OHITURA

Urdiaingo ohitura hau, herrikoia eta aspaldi-koa delako aukeratu dut, eta baita ezaguna eta gogokoa dudalako ere, bertan izaten bait naiz urtero. Aldiz, pertsona honengana informazio bila hurbildu naiz bera garai batean herriko alkatea izan zelako, eta horrelako ekintzetan betidanik parte hartzen duelako.

Grabaketa

Julian Etxeberriak kontatuko digu Urtezahar gaueko Urdiaingo ohitura hau:

“Bueno pues, ni akordatzten naizenakin, Urte-zahar eguna pues, gu gaztiek gindala, hasten gindan gau sinalatu bekela, elkartzen gindan launak yozein etxe ixkina batien eta hasten gindan alde batia, bestia, gio faten gindan nesakiek ia nun zukain Urtezahar eguneko bilera hori, o nun zen inguatui eta ya faten gindan haiengana, bia barrua ez gindan sartzen guaindo, e. Osea ke, gero ibiltzen gindan espiatzen aiketa hamabiek jo artia eta hamabiek jotzen zain garaian, faten gindan ur berria eske. Bia nolabait yoten gindan koadrila bat beindore gaio, danok nahi genduen hartzea pastel hori, orduen faten gindan korrikan ea nork harrapatu batek besteai eta hortik etor zen peleia pixkat. Eta gio hamabiek jotzen zein garaian faten gindan ur berriakin apizan ataira eta apizan ataien kantatzen genduen eta apiza atatzen zan kanpua be pastelakin eta bueno, ematen ziein pastela eta guk hua nahi genduen eta guk pues banatzen genduen launen artien.

Pues, “Ur goienan” gauzi hau askotan gora-behera asko ibil tu. Orduben aspaldien pues bai, inguatzen zian apiza ta herriko agintaiek eta ingua-tzen zian beste auzotegitan inguatzen zian bezela. Bia gio, urtiek pasa, gorabehera asko ibil zian ta hau pixkat galdu zan. Ta gero apizak segitzen zen ematen, bia urte batzutan bai, urte batzutan ez, segun ze giro zon herrien, gaztiek faten zian o ez zian faten, zeatik Urdinen e, garai batien, giro kaskar samarra egondu zan, zeatik herria egondu zan zatituik, puskatuik. Eta orduen segun ze giro yoten zan, segun ze alderdikuek, faten zian eta segitzen zein. Eta horrela pasatu zian

urte batzuk. Eta ni gaztia nintzala, tira, gauza hoiek pasatuik zen eta ya giro ona zon eta gaztiek faten gindan apizantxia. Orduen yoten zan bakarrik apiza ayuntamentuik gabe. Eta orduen gu faten gindan garaian eta segun ze koadrila faten zan lenbizko, pues nolabait alkar errespetatzen gindan guri ematen zain, lenbizko faten zanai. Eta guai berriro; ne garaian zan Don Pedro Lazkoz,, eta gio etorri zan Don Jose Maria Satrustegi eta honek(hau) hasi zan jende zaharran bidez aspaldiko kontuek biltzen eta bilatu zen lehen nola zan eta hasi zan bia gauza hauek mogitzen ta indarra eman zian. Eta orduen jendeai adierazi zion eta jendiek ondo hartu zen, eta orduen hasi da berriz guaiko lera. Eta guai, pues, inguatzen dia apizantxien ayuntamentua Urtezahar egunien. Eta gio inguatzen zian Pazko egunien ayuntamentuen, bueno, al rebes izango da, lenbizko Pazko egunien inguatzen zian ne garaian, ni ayuntamentuen nengola, pues inguatzen zian Pazko egunien, inguatzen zian apiza ta bueno, ayuntamentuek gonbiatzen zian apizai eta hartzen gendun gure luntxa, eta orduen harek bueltatzen zen guri Urtezahar egunien. Eta orduen, pues ia hamabitan yoten zan apiza ta ayuntamentua alkarrekin. Orduen ya, gazte jendiak hartu zen Urdiaingo ohitura honi aurria segitu behar zitzaiola ta hasi zan urtero urtero faten gaueko hamabitan. Orduen ya ez zon lengoko pikadilo hura, zengatik ya ez zon tarta jateko gose hura, baizik bakarrik ohituria zalakoz, hala zegi zen. Ta guai, gio jendia, herriko jendia hasi zan faten pixkakan, pixkakan, pixkakan, gio ta gaio, ta gio ta gaio, ta guai, pues, herria inguatzen ga bastante poliki, han, hamabitan ta giro polita yoten da.. Eta klaro, orduen apizak hori emateko, tartia emateko, yan ber zaio ura, bia ur hori izan behar dau Urteberriko ura, hamabiek jo eta hartu ber dau ura eta ur berri hura eman behar zaio apizai, bueno apizai eta gio han den ayuntamentukoei eta jendiairi, eta hau da Urteberriko ura.

Pues ni gaztia nintzala gu faten gindan apizan etxia, bia guk kantainti hau osua ez gendakien. Gendakien pues bi estrofatxo, ta bueno, guk iten genduen aleina ta apizak ematen zain. Bia lenuo bazon (bazen) gizon jarri batzuk o zahar batzuk bazekieina dana eta ez dakit ze ingurutan izango zan, hiruro-geita hamarrien o, Satrustegik in zian gizon hoieiri hartu mikrofono batekin o zinta batekin, ta hartu zian abesti guztia o kantaita

guztia mikrofonuen eta ordutik ya hartu zan kantaita guztia puntatik azkeniaindo, “Ur goiena ur barrena urte berri egun ona” hasiera dukan kantaita hori. Ta guai, mundu guztiek, dakienak memoriz eta ez dakienak papetik, leitzen dugu Urtezahar egunien pues, herri guztiek apizan ataien kantaita hori.”

URDIAINGO EUSKALKIA

Urdiain Nafarroako Sakana haranean kokaturik dago. Inguruko herrietan, batetik Iturmendi eta Bakaiku eta bestetik Altsasu eta Olazti, euskera galdu egin zen, hau dela eta, bertan euskaraz hitzegiten jarraitzen den arren, zenbait hitz eta adierazteko era gazteleratik hartzen dira. Hala nola:

<u>Erderaz</u>	<u>Euskeraz</u>
Pues.....	..ba.
Osea ke.....	beraz.
Espiatu.....	itxoin
Akordatu.....	.oroitu
Klaro.....	noski

Bestetik, gazteen hezkuntza euskera batuan izateak, Urdiaingo euskalkiak berez badituen hitz formen ordeztu, euskera batutik harturiko formak geroztik eta gehiago erabiltzea dakar. Adibidez:

<u>Batuan</u>	<u>Euskalkian</u>
Gero.....	gio
Bezela.....	bekela
Dugu.....	du
Urtero.....	urtio
Behar.....	ber

Askotan, euskera batuko hainbat hitzek Udiain-go euskalkian “r” galdu egiten dute. Esate baterako:

<u>Batuan</u>	<u>Urdiainen</u>
Apaizaren.....	apizan
Atera.....	ata
Bere.....	be
Inguratzen.....	inguatzen

Beste aldaketa aipagarri bat da, “ed” “er” eta “eg” hasten diren hitzak Urdiaingo euskalkian “Y” hartzen dutela da. Hau garbi ikus daiteke hurrengo kasu hauetan:

<u>Batuan</u>	<u>Euskalkian</u>
Edozein.....	yozein
Egon.....	yon
Edan.....	yan
Eraman.....	yan

Beste aditz sintetiko aipagarri batzuk

	<u>Joan</u>	<u>Ibili</u>
Ni	nua	naile
Zu	zazi	zaitza
Bia	dua	daile
Gu	gazi	gaitza
Zek	zazai	zaitzai
Haiek	dazi	daitza

Honako hauek ere Urdiaingo euskalkian dauden aldaketa aipagarri batzuk dira.

<u>Batuan</u>	<u>Euskalkian</u>
Orain.....	guai
Joan.....	fan
Baino.....	baindo
Baina.....	bia

Bestetik, esan behar, euskara batuan egiten diren bustidura gehienak Urdiaingo euskalkian ez direrla egiten, hau da, idazten den bezela ahoskatzen dira (ilargia, oilaskoa, iluna,...) .

Noraino kasuan deklinaturiko hitzak aldiz indo erantsiz egiten dira, adibidez:

<u>Batuan</u>	<u>Euskalkian</u>
Parkeraino.....	parkiaindo
Etxeraino.....	etxiaindo

UR GOIENA UR BARRENA

Urdiaingo Urtezahar eguneko ohitura honi bu-ruz esan beharra dago, garai batean Sakanako herri gehienetan egiten zela. Zoritxarrez, eta euskerarekin gertatu zen bezela, Urdiain izan da inguru horretan ohitura hau mantendu duen bakarra. Julianek kontatzen duen bezela, garai batean desagertzear egon zen, baina Satrustegiri esker berpiztu egin da eta indarra hartu du.

Lehen, mutilek bakarrik parte hartzen zuten. Talde ezberdinak joaten ziren herriko iturrietara urteko ur berria ahalik eta azkarren hartu eta agintariei besteak baino lehenago eramateko. Lehia hau, garai hartan tarta jateko gogoaren eraginez sortzen zen.

Gaur egun, aldiz, herri osoak parte hartzen du. Gaueko hamabiak aldera apaizaren etxe aurrean elkartzen da jendea, barruan udaletxeko jendea eta apaiza elkarrekin daudelarik. Bi gazte, 18 urte inguruko neska edo mutilak, pitxarra harturik herriko bi iturritan hamabiak jotzeko zain egoten dira. Ezkilak jotzen hasi bezain laster, bi gazteek ura hartu eta apaizaren etxeko atera joaten dira. Momentu horretan bertan bildutako jendea Ur goienaren abestia abesten hasten da. Bukatzean, barrukoek atea ireki eta bi gazteek ura eskaintzen diote. Lehenik apaiza eta udaletxeko jendeak edaten du ur hori eta ondoren kanpoan bildutako herritarrek edaten dute urteko ur berri hori. Apaizak ohiturari jarraituz bi gazteei tarta eskaintzen die eta hauek kanpokoen artean banatzen dute.

Diotenez, ur berri honek urte osorako osasuna ziurtatzen du.

Horrela ospatzen da Urdiainen, giro atseginean, Urtezaharreko gau berezi hau.

UR GOIENA UR BARRENA

*Arantzazu, zer dekazu?
Ur goiena ru barrena.
Ur barrena ur goiena,
Urteberri egun ona.*

*Etxe honetan sar daiela
bakearekin osasun.
Bakearekin osasuna
onarekin ondasuna.*

*Etxekoandre giltzaria
iriki zazu ataria.
Iriki zazu ataria
badekagu ur berria*

*Etxe honetan oilar bi
bat bestea dirudi.
Etxe gontako etxeko andriak
Ama Birjina diruki.*

*Etxe hontako nausi jaunak
poltsia txintxirrinduna.
Poltsia txintxirrinduna
zilarrez ezpata duna*

*Etxe hontako nausi jaunak
urre gorrizko bizarra.
Hartxek eman dia neri
errialtxo biko zidarra*

*Goien goien ilargia
erdi erdian klabelina.
Gure baratza belar ona
hark botatzen du usai ona.*

*Izotzetan elurretan
Abenduko gau luzetan.
Beste guztiak oian eta
gu gaxuok oin hutsetan.*

*Eguzu bada eguzu
baldin eman nahi baduzu.
Baldin eman nahi baduzu
bestela despei gaitzazu.*